



«Txori-txiki» izenpetzen zuan EZENARRO MENDIA'tar JON, euskal olerkaria, berez errenderitarra ez izan arren, gure erria biotzbiotzez maitatu zun. Emen bizitu zan urte askotan, ta emen bertan illobiratuak daude bere gurasoak.

Bere eriotzaren 20'garren urtea oroituaz, eta laister argitaratuko diran bere lanen itz-aurre eran, OARSO'k poz-pozik bildu ta azaltzen ditu oraindaño ixillean gordeak egon diran bere olerki batzuek. Bere biotz goxotasunarekin batera, olerki auetan ederki agertzen zaigu zeñen uki-bera zan.

Don JUAN ECENARRO MENDIA, el inspirado poeta vasco que popularizó el seudónimo de «Txori-txiki», no era renteriano por su nacimiento, pero amaba de corazón a este pueblo, donde vivió durante años, y en el que descansan los restos de sus padres.

OARSO se honra al traer a sus páginas hoy, a los 20 años de su fallecimiento, unas muestras inéditas de la fina sensibilidad que predomina y rebosa de su producción poética, como anticipo de la próxima publicación que sabemos se prepara de todas sus obras.

## Ama'ri

¡ A nere biotzeko Ama!  
 Ludiko izenik goxoena,  
 Lore ederra,  
 Zeruko izarra,  
 Notiñ guzietan maitiena...  
 Dago-ba lurrian besterik  
 Zu ainbeste maite danik?  
 Ez Amatxo,  
 Zu-aiñ iñortxo  
 Ez det ludian maite nik.

Zergatik ona zu bakarrik,  
 Emakumia txarra izanik?  
 Zeralako maitea  
 Ama nerea,  
 T'au dezu ortarako askorik,  
 Ba nere Ama zu izanik  
 Ez da ludian iñor oberik,  
 ¡ Ama zeralako  
 Neri maitatzeko!  
 Gau-t' egun, osasun-ta-gaxorik.

Dut Ama, biotz barrenian  
 Dagon tokirik onenian  
 Elizatxo bat  
 Egiña zuretzat,  
 T'an zaude ni bizi artian  
 Eguzki ederra bezin garbirik  
 Ludiko loi-zikin guzitatik:  
 ¡ Amatxo nerea!  
 ¡ Bakarrik zurea  
 Nai det izatia beti nik!

## ¿Negarrez ago?

Zer daukan  
 ¡ Ene kutuna!  
 Aiñ garratz negar egiteko?  
 Zertzeukaten  
 Begi-eder oyek  
 Malko samiñak orrela illuntzeko?

Gaixorik al daukan  
 Biotz xamurra?  
 Maitasuna-aldon ire naigabea?...  
 Ori dala?  
 ¡ Ago-ba ixilik  
 Loretegi ederreko lore maitea!

Esaidan neri  
 Ire naigabeak,  
 Bai, kutuntxo, egiya esaidan;  
 Maitasun gaitza  
 Ondo zekiñat...  
 ¡ Berak ba biotza urratu zidan!

.....

Ire maiteakin  
 Aizela asarretu?  
 ¡ O, neskatilla!, ori zer den?  
 Ire maiteak,  
 Esaten diñat,  
 Ik bezela negar dubela egiten.

Ago-ba ixil  
 ¡ Ene laztana!  
 Orregatik negar ezdalako egiten!  
 Zergatik maitasuna  
 Egizkua damian...  
 ¡ Asarre txikiyak ditun astutzen!

## ¡Nun yago!

Nun yago  
¡Ene kutuntxo!  
Nere aurrera ez etortzeko?  
Zergatik nigana  
Ez ator berriro  
Biotz gaxo au alaitzeko?

Egun baten  
Agertu itzanan  
Anitz ederra nere aurrian...  
¡Nolako garra  
¡Ene maitea!  
Biztu zitzaidanan biotzian!

Iduritu zitzaidan  
Aurrian neukala  
Aingerutxo ederra eder tartian;  
Orregatik itzak  
Gelditze itunan  
Irten eziñik estarri barrenian.

Eguzki ederrak  
Zabal oidizkin  
Anitz goxo diran oztargiyak...  
Baña kutuntxo,  
Eguzki ederrori,  
Illuntzen zakin ire arpegiyak.

Zeru ozkarbiya  
Anitz alaitzeko  
Izar politak biar eiduntun...  
Baña maite,  
Ire begiyekin,  
Zeru ta lurra alaitzen ditun.

Txindorra abesten  
Alai dagonian  
Aingeruak lez abestu oidin...  
Baña, nere,  
Ik abestian,  
Lotsaz beteta ixiltzen zakin.

Ator ba kutun,  
Ator nigana,  
Gaixo dagon biotza sendatzera...  
Ator arin  
Maite diranala  
Nik iri lez, neri esatera.

## Neskatilla bati

Ikuste autenian,  
Biotzak zidan:  
¡Maitezak!  
Aingeru eder  
Izar polit ori,  
¡Maitezak!  
Loretxo liraiñ  
Txori alai ori,  
¡Maitezak!

Abotxo politeko  
Barre xamurrak,  
¡Eskayok!  
Begi ederretako  
Begiratu goxuak,  
¡Eskayok!  
Maitasun maitienak  
Beretzat dauzkatela  
Esayok...

.....  
¡O, nere biotz gaxua!  
Ezere erru gabekua  
¡Errukidit!  
Naiz maitearen begiyak  
Zabaldu oztargi garbiyak,  
Alperrik;  
Ba, ez ire edertasuna,  
Baizik nere itsustasuna...  
¡Ikustendik!

## ¡Txori gaxua!

¡Ene txori polit-polita  
Samiñez abesten zaudena!  
Elur txuri-txuriya ikustian  
Etzaizu alaitzen barrena?

Zugatzak daude txuriz jantzirik,  
Maindire garbiyaz estalirik zelayak,  
Mendiyak arro, edertasuna erakutziz,  
T'ixil-ixil dijuaz ibai alayak...

¡Zeiñek zuk bezela liteke  
Ega-egaka laiñuetara igo,  
Izamenaren jantzi ederra  
An goitik ikusteko gero!

Bañan zuri, txori kutuna,  
Ezdizu alaitzen elurrak,  
Eta ikustian txuritu lurrea  
Abesten dituzu samiñ negarrak.

Kabiyan zaude otzez dar-dar,  
Jana ezin billa dezu lurrian;  
Etsaya berriz erne itxoiten  
Atzaparra botatzeko zu ikustian.

Ara ba Izamenan edertasuna  
Naigabe gogorra zuretzat biurtua,  
Orregatik nik elurra ikustian  
¡Erruki zaitut txoritxo gaxua!